

» DISKOA

Seigarren haginkada



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Zelatan daude berriro Erromako aita-santua-
ren sasikumeak Santa Calavera delakoak erai-
kitako guzti hori profanatu eta eztandarazteko
unearen zain. Ustelkeriako Santa Calavera,
kapitalaren agindupean, gosea, izurritea, gerra
eta diru-gose amaiezina non-nahi barreiatzen
duena, sotana, txapeloker, bizardun belaualdi
berri, etiketa jantzi zein gurutzea jantzita mo-
zorrotuta dago. Bilbotarrek seigarren diskoa
kaleratu berri dute eta jada inork sinesten ez
duen ongizate sistemari eta haren errudunei
aurre egiten diete modu gordinenean, egoera
zailenetan beti aurre egiten duten eta galtze-
ko ezertxo ere ez duten arratoi erasokorrenak
bezala. Adi haginkada berriari!

Rat-Zinger taldeak tiro egiten du lehenengo,
eta gero abestu. Izan ere, zertarako eztabai-
datu, hausnartu... bizitza hain gogorra denean
eta itxaropenik ez badago. Aukera bakarra
da bonzo eran aurrera egitea. Halakoak dira
Bilbo Handian erditutako sasikume hauen 12
kanoikada berriak: tralleroak, gitarreroak eta
erasokorrak erabat. Iraganean egin ohi zuten
bezala barkatzen ez duen abiadurz beteriko
hardcore-punka berreskuratu dute (*Santa
Calavera, Ya no quedan días de gloria, Verbode-
cer...*); Lemmy Kilmister handia ez dute inoiz
ahaztuko (*Toda forma de poder, Golpeando al
hombre muerto...*) ez jarreran ezta ahots erre-
gistroan ere. Tarteka musika industrialaren
oinarriak jarri zituzten taldeak gogora ekarri
dizkigute (*Antimental*) eta, bide batez, ohar-
kabeen pasa ziren Tromatism-en gisako talde
handiak errebindikatu dituzte (Zorrotzaurre-

Santa Calavera RAT-ZINGER

Autoekoizpena, 2018



ko garai haiek!). Inoiz metalera ere hurbildu
izan dira (*Tu pasajero*) eta gai dira, baita ere,
abiadura itzela eta erritmo aldaketak ezkon-
tzeko (*Más allá del límite*). Baina diskotik dis-
kora estiloetan nolabaiteko jauziak egin izan
badituzte ere, ez dute inoiz inola ere ahaztuko
nondik datozen eta nongoak diren, hau da, ka-
lekumeak dira betirako. Horregatik, berezkoa
dute rock kaletarra eta, ondorioz, Quemando
Ruedas, Porco Bravo eta antzeko gizakumeen
tankerako sinesgarritasuna lortzen dute (*Tú
ya no eres él, No hay mañana* eta batez ere, *Mil
perras*). Diskoko azken hatsa edo tiroa *Indes-
tructibles*-i dagokio. Total, izango da gerorik? ■



Rat-Zinger talde
bilbotarraren
seigarren diskoa da
'Santa Calavera'.